Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO ABENDUAREN 9AN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa

**Zinegotziak:** Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- COVID-19KO PANDEMIA DELA-ETA OSTALARI ETA MERKATARIEI INBERTSIOETARAKO BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZEN LEHENENGO BANAKETA ONARTZEA.**

**Ikusirik**

2020ko Urriaren 27an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Covid 19ari aurre egiteko, Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko, jarduera ekonomikoa prestatzera bideratutako inbertsioak diruz laguntzeko oinarriak.

Covid 19ak eragindako egoera berrira egokitzeko Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza establezimenduek egin beharreko inbertsioak, ekipamenduak jartzea eta/edo inbertsio horiek egiteko ikerketak diruz lagunduko dira.

Dirulaguntzaren onuradunak izango dira Usurbilgo Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden Txikizkako Merkataritza eta Ostalaritza sektoreetako pertsona juridiko nahiz fisikoak, eta beraien jarduera eranskineko JESN zerrendan jasotzen bada.

Deialdi honi aurre egiteko zenbatekoa  28.006,00 € dira.

Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31 artean egingo dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako jarduketaren %100 artekoa izango da, eta diruz lagun daitekeen gastua, lehenengo banaketan, gehienez ere 2500 eurokoa izango da establezimendu bakoitzeko. Horretarako,haren finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideak ez badira nahikoak egindako eskaerei ezarritako zenbateko eta ehunekoetan erantzuteko, horien artean hainbanatuko dira, oinarri gisa aurkeztutako aurrekontuaren arabera kalkulatutako diru-laguntza teorikoaren zenbatekoa hartuta, oinarrietan ezarritako muga kontutan hartuta, beti ere aurkeztutako aurrekontuak deialdiaren helburua justifikatzen badu.

BEZa eta bestelako zeharkako zergak diruz lagunduko dira, soilik ez badira berreskuragarriak eta orekatzea ezinezkoa suertatzen bada.

Epea amaituta, 31 **eskaera** jaso dira.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren eskaera guztira, 69.174,22 €koa izan da. Establezimendu bakoitzari gehienez ere 2500 €ko zenbatekoa onartuta berriz 49.299,24 € dira. Azken zenbateko honi erantzuteko finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideak ez direnez nahikoak, izandako eskaeran artean hainbanatu da, onartutako gastuaren %56,81 a suposatu duelarik. Eranskinean jasotzen da establezimendu bakoitzari onartutako zenbatekoa.

Onuradunei, dirulaguntza onartu aurretik, inbertsioa egin ahal izateko Usurbilgo Udalari dagozkion baimenak eskatuak eta onartuak izan beharko ditu eta hainbanatutakoaren berri emango zaio dirulaguntza onartu edo uka dezan.

Lehenengo banaketa honen ondoren deialdi honetan aurreikusitako baliabide ekonomikoak ez balira agortuko, bigarren banaketa batean soberakinak hainbanatuko dira dirulaguntza onartu duten eskaeren artean.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian lehenengo eta bigarrengo banaketa honen berri emango da eta interesatuari ere emailez jakin eraziko zaizkio. Emailari erantzunez onartu edo ukatuko du dirulaguntza, jaostzen duen momentutik 3 eguneko epean.

**Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, Uztailaren 21ekoa.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa**: Eranskinetan jasotzen den taularen arabera, dirulaguntza burutu duten saltokien eskaerak onartzea eta baita ere hainbanatu ondoren dagozkien zenbatekoak.

**Bigarrena:** Diru-laguntza jaso ahal izateko aurretik inbertsioari dagozkion baimenak eskatuak eta onartuak izatea eta interesatuak hiru eguneko epean dirulaguntzaren zenbatekoaren jakin erazpena jaso ondoren dirulaguntza onartu edo ukatzea.

**Hirugarrena**: Hala badagokio, uko egiten dutenen dirulaguntzaren soberakinekin dirulaguntza onartzen dutenen artean bigarren banaketa bat egitea.

**Laugarrena:** Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian lehenengo banaketa honen berri emango da.

Usurbilgo Udala

**Bostgarrena:** kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**

## ERANSKINA

| zb. | Eskaera | IFK | Zer | Eskaera | Guztira onartua | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Puntapax 12 S.L | XX5162XXX | Karpa | 5.070,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| 2 | Opil Goxo S.L. | XX5082XXX | Bitrina | 1.391,30 € | 1.391,30 € | 790,37 € |
| 3 | Beatriz Azaldegi Urkiola | XX8842XX-X | Gel ontziaren euskarria | 207,75 € | 345,69 € | 196,38 € |
| | | | Manpara | 137,94 € | | |
| 4 | Maria Urtasun Bastida | XX6931XX-X | Karpa | 887,31 € | 887,31 € | 504,06 € |
| 5 | Gorka Telesforo Astiazaran Aizpurua | XX1493XX-X | Desinfekzio zerbitzua | | ez da onartu | |
| | | | Bitrina | 250,47 € | 250,47 € | 142,29 € |
| 6 | Alkartasuna Baserritarren kooperatiba | XX0023XXX | Kobraketa eremu berria kajoia | 70,00 € | 428,46 € | 243,40 € |
| | | | Manpara | 158,49 € | | |
| | | | Antolaketa | 199,97 € | | |
| 7 | Iñigo Eguilegor Santana | XX5028XX-X | Toldoa | 1.203,50 € | 1.326,64 € | 753,64 € |
| | | | Berogailua | 123,14 € | | |
| 8 | Aginaga Sagardotegia S.L. | XX0472XXX | Pedestala | 309,00 € | 540,80 € | 307,22 € |
| | | | Termometro | 83,30 € | | |
| | | | Mampara | 148,50 € | | |
| 9 | Begoña Zubiria Ayerza | XX4879XX-X | Manpara | 234,89 € | 659,80 € | 374,82 € |
| | | | Bapore makina | 218,01 € | | |
| | | | Gel ontziaren euskarria | 206,91 € | | |
| 10 | Mikel Perales Pinero | XX999XXX-X | Karpa+kortina | 1.727,23 € | 2.066,11 € | 1.173,72 € |
| | | | kalefakzioa+argiak | 338,88 € | | |
| 11 | Ana Mari Balerdi y otro C.B. | XX5096XXX | Toldoa | 1.396,50 € | 2.418,35 € | 1.373,82 € |
| | | | Manpara | 663,92 € | | |
| | | | Kalefakzioa | 357,93 € | | |
| 12 | Igor Gorriti Lizaso | XX4791XX-X | Karpa | 5.400,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | Bitrina | 195,00 € | | |
| 13 | Jose Leon Arriaga | XX9054XX-X | Leihoak | 927,60 € | 927,60 € | 526,95 € |
| 14 | Ivan Salsamendi | XX4539XX-X | Mahaiak | 2.112,00 € | 2.112,00 € | 1.199,79 € |
| 15 | Eneritz Elorza Villar | XX7320XX-X | Toldoa | 2.537,13 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| 16 | Iker Alduntzin | XX4426XX-X | Bitrina | 440,00 € | 2.314,47 € | 1.314,81 € |
| | | | Karpa | 1.874,47 € | | |
| 17 | Doltza Begiristaina | XX4513XX-X | Bitrina | 165,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | Bitrina | 390,00 € | | |
| | | | Abisu emailea | 1.490,00 € | | |
| | | | Karpa | 1.874,47 € | | |
| | | | kalefakzioa | 960,00 € | | |
| 18 | Adats Izpiak S.L. | XX5230XXX | Manparak | 785,00 € | 785,00 € | 445,94 € |
| 19 | Koro Esnaola | XX9720XX-X | Manparak | 53,78 € | 303,32 € | 172,31 € |
| | | | Gel ontziaren euskarria | 249,54 € | | |
| 20 | Paulino Ibargoien | XX0802XX-X | Karpa | 1.874,47 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | 3 berogailu | 600,00 € | | |
| | | | Instalazioa materiala | 350,00 € | | |
| | | | Instalazioa eskulana | 480,00 € | | |
| | | | 3 toldo | 1.722,00 € | | |
| 21 | Jose Javier Iribar | XX9574XX-X | Bitrina | 250,00 € | 250,00 € | 142,02 € |
| 22 | Josefa Gonzalez | XX7774XX-X | Aire arazgailua | 1.273,98 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | Esterilizagailua | 1.363,63 € | | |
| 23 | Desarrollo conceptos hosteleros S.L. | XX0676XXX | Bitrina | 1.400,00 € | 1.955,00 € | 1.110,60 € |
| | | | Kartak Txinparta | 555,00 € | | |
| | | | Lokalaren desinfekzioa | | ez da onartu | |
| 24 | Inversiones Etxekoak S.L. | XX0716XXX | Bitrinak | 2.800,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | Kartak Peregrinus | 761,00 € | | |

Usurbilgo Udala

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Kartak Boulevard | 864,00 € | | |
| | | | Lokalaren desinfekzioa Peregrinus | | ez da onartu | |
| | | | Bitrinak Boulevard | 420,30 € | | |
| 25 | Arantxa Arrospide | XX4456XX-X | Airearen birzirkulazio egokitzea | 3.200,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| | | | Argi etengailuen ordezkapena | 150,00 € | | |
| | | | Joan etorrien seinalizazioa | 300,00 € | | |
| 26 | Zumeta Jatetxea S.L. | XX0859XXX | Karpa | 2.366,59 € | 2.366,59 € | 1.344,42 € |
| 27 | Ana Isabel Flores Rolin | XX8682XX-X | Toldoa | 1.916,00 € | 1.916,00 € | 1.088,44 € |
| 28 | Iñigo Urrozola Sanchez y otro c.b. | XX1722XXX | Toldoa | 8.134,00 € | 2.500,00 € | 1.420,20 € |
| 29 | Patxi Borda | XX0998XX-X | Toldoa | 2.206,13 € | 2.206,13 € | 1.253,26 € |
| 30 | Peru Roiz Pagola | XX4539XX-X | Toldoa | 826,45 € | 1.239,67 € | 704,23 € |
| | | | Mahaiak eta aulkiak | 413,22 € | | |
| 31 | Eguzkitza Janari denda S.L. | XX0819XXX | Gel ontziaren euskarria | 108,53 € | 108,53 € | 61,65 € |
| | | | **GUZTIRA** | **69.174,22 €** | **49.299,24 €** | **28.006,00 €** |